

harrobia. Gidari oso gazteak aukeratzeko dituzte eta lagundu egiten diete aurrera egiten.

1996an Elf-Campus formularen korritu nuen eta baita nahiko emaitza onak lortu ere: bi lasterketa irabazi nituen, beste bitan onena izan nintzen entrenamendu saioetan eta sei alditan egin nuen bira azkarrena. Azken sailkapenean laugarren geratu nintzen, eta Elf-eko arduradunek, emaitzak ikusita, erabaki zuten mailaz igo behar nuela, Elf-Campusetik Renault formulara.

Lehenengo bi lasterketetan oso denbora onak lortu nituen eta onena izan nintzen gazteen artean. Baina, zoritxarrez, Noganon, istripua izan nuen eta oraingoz dena bertan behera erori da.

■ **Nola gertatu zen istripua?**

Bigarren lasterketako entrenamenduetan ikusi nuen gazteen artean lehena nintzela, baina sailkapen orokorrean bosgarren. Niretzat garrantzitsuena gazte onena izatea da, baina erasotzea erabaki nuen sailkapen nagusian lehenengo hiruren artean sartzeko eta lasterketa aurre-aurrean hasteko. Entrenamendua goizean goiz egin genuen eta pista oso hotza zegoen. Beraz, gurpilak ere hotz samarrak zuden eta ez ziren behar bezala itsastan pistara.

Pistatik atera, bira batzuk eman eta geldirik geratu nintzen pistaren erdian, gidariak 180 kilometro orduko inguruan pasatzen diren zati batean. Beste auto batek nirearen aurrealdea moztu egin zuen belauen parean, eta hankak zintzilik geratu zitzaizkidan. Bestearen autoak tibia eta peronea hautsi zitkidan. Egia esan ez dakit nolatan ez zen ezer larriagorik gertatu.


■ **Zer moduz zaude?**

Ongi esan behar. Tibian hezur zati bat falta zait (behatzekin falta zaion hezur zatia erakusten digu) eta hutsunea betetzeko burdin zati bat jarri didate. Oraingoz atseden behar dut.

■ **Zer esan dizute medikuek?**

Istripua martxoaren 31n izan nuen eta medikuek diotenez ekainaren bukaera edo uztailearen erdira arte ez naiz erabat osatuko. Teorian behintzat uztaile arte ezin dut berriro lasterketan parte hartu. Uztailean lasterketa bakarra dago eta ez dut korrituko. Abuztuan oporrak dauzkagu eta, beraz, iraila arte ez naiz jarriko bolantearen aurrean.

■ **Aita gidaria da eta zu ere bai. Zer dio amak?**



• **Ander Vilariño, aitak aurten erabiliko duen autoa aurkeztu zuen egunean.**

EDURNE KOCH

Amak izugarri sofrizten du, bai geure istripuekin bai besteekin, pentsatzen baitu guri ere gerta dakigukeela. Bera da gehien sofrizten duena, baina baita gehien laguntzen diguna ere. Aitak behin baino gehiagotan esan du utzi egingo duela lasterketen mundua niri laguntzeko, baina amak esaten dio ezetz, jarraitzeko. Ama nirekin etortzen da lasterketa guztietara.

Ni gaizki nago, hezurra hautsita baitut eta lasterketa dezente galduko baititut. Hala ere, aurreko asteburuan nire taldeko gidari bat hil zen Le Manseko zirkuituan entrenatzen ari zela. Hori bai dela gogorra. Amak etengabe errepikatzen du autoen mundua erokeria dela, baina gure bizitza da eta ezinezkoa dugu uztea. Gurasoek zer pentsa dezaketen jabetzea izugarria da.

■ **1 Formulara iristea al duzu helburu?**

Jendeak pentsa dezake 1 Formulara iristea utopia bat dela, ia ezinezkoa, baina ez da hala. Horretara iristeko leku egokian egon behar da une egokian. Diru asko eta zorte handia behar da. Oraingoz urratsez urrats joan nahi dut eta ikusiko da noraino iristen

naizen. Renault formularen hurrengo urratsa 3 Formula da, ondoren 3000 Formula eta, azkenik, 1 Formula. Hori da bide zuzena 1 Formulara iristeko, baina badaude bestelako adarrak edo aukerak ere. Norberaren gaitasunaren menpe dago.

Oraingoz ez dut helburu zehatzik, oso gaztea bainaiz. Lehendabizi oinez ibili nahi dut berriro. Orain helburu nagusia ondo jartzea da, osatzea, eta denboraldia ondo bukatzea. Taldea oso profesionala da, ohituak daude beraien gidariak 1 Formulara eramaten. Ni horien artean banago ondo, baina bestela autoen beste adar batzuk jorratuko ditut. Agian beste txapelketa horiek ez dira 1 Formula bezain ikusgarriak eta garrantzitsuak, baina 1 Formulatik kanpo ere badaude txapelketa garrantzitsuak.

■ **Vilariño abizena izatea zer da, laguntza ala zama?**

Jendeak pentsa dezake Vilariño abizena izateagatik bidea erraztu egin zaidala, baina aitak eman didan laguntza bakarra bere jakituria eta esperientzia izan da, dakidan guztia berak irakatsi baitit. Elf-ek Bartzelonako aukeraketa egin zuenean

garbi zegoen ez ziotela abizenari begiratzen, azkarra izateari baidarik. Hori bai, nabaritzen dut Vilariño abizenak lagundu egin dimala komunikabide eta kazetariek.

■ **Zein da motor lehiaketan egotera Euskal Herrian?**

Automobilismoan oso gauza arraroa gertatzen da Euskal Herrian. Oso gidari onak eta zaletasun handia dago. Hala ere, ez daukagu zirkuiturik eta azpiegituririk. Automobilismoa ez da ohiko kirol bat. Ia edozein haurrek jolas dezake futbolean, baina edonork ezin du auto bat erosi. Lehiaketan munduan hasteko mundu horretan jaio behar da edo bestela zorte handia izan.

■ **Automobilismoan zerbait lortu nahi duenak Euskal Herrikanpora atera behar al du?**

Euskal Herrian hainbat gidari

on atera dira motorren arlo askotan. Rally gidariek txapelketak egin ditzakete Euskal Herrian edo bertako talde batekin, baina guk, Euskal Herrian zirkuiturik ez dagoenez, kanpora atera behar dugu. Euskal Herriko gertuen dagoen zirkuitua Nogarokoa (Frantzia) da, Hondarribitik 150 kilometro ingurura.

Askotan aita ikusten dut eta Jaizkibelan lehiatzen denean etxean bezala dago. Nik, berriz, asko bidaiatu behar dut: Denaden, etorkizunean gidari ona eta garrantzitsua izan nahi badut, ohitu egin behar dut etxetik kanpo bizitzera eta moldatzera. Goi mailako kirolari gehienek bidaiatzen dute, baina gertatzen da futbolariek oso gertu dituztela futbol zelaiak; nik, berriz, kilometro mordoak egin behar dut entrenatzeko. x

T X I N G U R R I

TAILERRAK

Añorga hiribidea, 3


Tel.: 36 34 46

DONOSTIA

SEAT

Udalaitz, S.A.

INDARTSUAK GAUZA GUZTIETAN



Ibiza TDi/Diesel

Injekzio Zuzeneko Turbo Diesel-ak kontsumo zifra harrigarri bat eskaintzen dizu, pentsaezina horrelako beste auto batean: 4,0 litro 100 km.ko.

Ibiza 1.9 TDi-k martxan erabateko erosotasuna eta gasolina-motore baten isiltasuna eskaintzen ditu. 1.9 TDi-k maila bereko auto batean lortezinak ziruditen hainbat prestazio eskaintzen dizkizu.

Musakola auzoa z/g
792125
791880
20500 - ARRASATE